



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 1a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondorioz edukitu Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsi du (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00139. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantaren proiektuari buruzko ahozko galderari emandako erantzunari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (3. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondoriorik eduki Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2025eko martxoaren 26an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomia-erkidegoen zorra nork bere gain hartzeari buruz Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakiak ez dezan ondoriorik eduki Nafarroaren oinarri-urteko ekarpenean. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2025-2029 bosturtekoaren oinarri-urteko negoziazioan Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak Foru Komunitateak bere gain hartu gabeko kargatzat jotzeari dago-kionez, horien zenbaketatik kanpo utz daitezen Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak 2025eko otsailaren 26an hartutako erabakitik erator litezkeen kopuruak. Erabaki horren bidez, onetsi zen Estatuak bere gain hartuko zituela araubide erki-

deko autonomia-erkidegoen zorreko 83.352 milioi euro, bai oinarri-urte horretarako bai zorra bere gain hartze horren eraginpean egoten ahal diren guztietarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ogasun Departamentuak neurri haiek jorra eta proposa ditzan, zeinek zorpresioaren lasaitzea ahalbidetuko baitute eta gure aurrekontu-ahalmena hobetuko baitute; horretarako, aldebikotasunez iritsi beharko dira Nafarroaren eta Estatuaren arteko akordio egokiak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren foru-araubidea aldeztu eta defendatzen du, eta errespeturik handiena azaltzen dio Koordinazio Batzordeari, Hitzarmen Ekonomikoaren aplikazioan Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren elkarlan egokia bermatzen duen organo bat den aldetik".

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00139. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantaren proiektuari buruzko ahozko galderari emandako erantzunari buruzkoa*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantaren proiektuari buruzko ahozko galderari emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantaren proiektuari buruzko ahozko galderari otsailaren 13ko kontroleko Osoko Bilkuran emandako erantzunean, zergatik gorde zenuen informazio garrantzitsua?

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

